

TOKIKOM

2011ko otsaila | 101. zenbakia

aiKOR!

txorierriko aldizkaria

Joseba Apezetxea

Argazkilariaren erretratua



HITZARTUTAKO ETXEBIZITZAK DERION



ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI

Bilbo Handiko
habitat berria

Izena emateko epea apirilaren 3ra artekoa



Eta egokitzen bazaizu?

Zozketa berria

eman ezazu izena!

*Dagoeneko 300 familia
baino gehiagok gozatzen
dute proiektu honetaz.*

Bete beharreko baldintzarik gabe,
kalitateko hitzartutako etxebizitza baten
zozketan parte har dezakezu:

- Jabetzan
- Derioko goiko aldean
- Berdegune zabalak
- Kirol ekipamendu pribatua lehentasunez erabiltzeko eskubidea
- Komunikazio onak
- Neurri bikainak hartu dira isolamenduan eta aurrezpen energetikoan



ETXEBIZITZA

Derio

www.deriohoudala.net

94 645 90 15

www.sukia.com



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Unai Ugalde, Sondika-Goiri Argazki Taldea, Xabier Díaz, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



12 Joseba Barandiaran



24 AIKOR! jaia



30 Pozgarri taldea

- 4 Eritxia
- 5 Editoriala
- 6 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Lotura
- 12 Gurean izan da... Joseba Barandiaran
- 14 Gaztea eta... Iker Landeta
- 15 Korrika 17
- 16 Ekidazu abesbatza, Parisen
- 18 Joseba Apezetxea, argazkilaria
- 24 AIKOR! aldizkariaren jaia
- 28 Susana Rodríguez... Martxoak 8
- 30 Elkarreak... Derioko Pozgarri taldea
- 32 Baserri mundua... Txakolinaren gerra
- 34 Aikorrizketan... Ditzolariak kafetegian
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax.: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

ETXERAINO



© 943-59 29 50

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

etxeraino@etxeraino.net

Haiti-Euskal Herria

Oraingo honetan burura etorri zait eskuartearen erabili ditudan, baina zerikusirik ez duten, azken bi liburuaren arteko aipamen bat egitea.

Haitiren gainekoa izan da lehena. Orain dela urtebete naturak egin zuen triskantzagatik herri horren errealitatea gogoratu genuen, ordura arte askok ahaztuta izan bagenuen ere. Urtebete geroago egoera latzean bizi dira oraindik ere. Munduko alde horretako herririk pobreenetarikoa da. Historiak dio 1492an Cristobal Colon heldu zela gaur egun Haiti den lurralde horretara. XVIII. mendean Frantziaren kontrolpean zegoen, eta 300.000 biztanletik 12.000 "libreak" ziren, mulatoak eta zuriak; gainontzekoak esklaboak, beltzak. XIX. mendean independentzia lortu zuten. Urte batzuk beranduago Estatu Batuetako tropak sartu ziren desoreka politikoa aitzakiatzat hartuta. Azken 50 urtean Duvalier aita lehenengo eta semea gero izan dira lurralde hori gobernatu duten bi diktadore. Tartean beste

presidente batzuk ere egon dira. Herririk egon badago esklabutza zer den dakiena, hori Haiti da. "Libre" bizi izan direnean ere, izan duten askatasuna antzerki hutsa baino ez da izan. Edo Frantzia edo Estatu Batuak egon dira bigilantzia lana egiten. Herria miseriaraino pobretu dute, biztanleriaren %70 baino gehiago pobrezian bizi da. Hizkuntzari dagokionez, frantsesa da hizkuntza kultua eta ofiziala, eta krio-llua, frantsesa eta gaztelaniaren eragin handia duena, koofiziala da. Orduko sasoiaren bizi zirenen hizkuntzaren ia arrastorik ere ez dago. Orain "libre" bizi dira, baina herritarrek ez dute ez lurraren jabegorik, ezta hizkuntzarenik ere, beste batzuk inposatutako hizkuntzan bizi behar baitute.

Koldo Izagirreraren *Autopsiarako Frogak* ere izan dut eskuetan. Irakurketaz izugarri disfrutatu dut. Informazio interesgarria ematen du eta gogoetarako bidea. Euskarak bizi izan duen egoeraren gainean intelektual, idazle eta herritar askok esan



ANA MEZO
(Irakaslea)

eta eman duten iritzi ugari dakartza. Para-grafo bat ekarri nahiko nuke hona: "Oker handirik gabe esan genezake esklabutza-aren abolizioan jokatu zen antzerkia bera dela elebitasuna: libre izendatu zaituen nagusiarena jarraitzen du izaten lurraren jabegoak... zure hizkuntza legezkotzeak ez dituelako ezertan higitzen bereak aspaldian hartuak dauzkan pribilegioak. Bilinguista, elebakarra da askotan". Hona hemen esklabutza ulertzeko modua, esklabo egiten zaituenean zein libre uzten zaituenean.

Euskaldunok, diotenez, kirolzaleak gara, tartean lehia dagoenean batez ere. Akaso horregatik, duela mende bat-edo, futbolaren berri izan eta segituan hasi ginen taldeak eta txapelketak antolatzen. Harrezkero, jokoaren beraren funtsa gutxi aldatu bada ere, futbola kirol izaera galduz eta ikuskizun-negozio kutsua irabaziz joan zaigu, gaur egun itzelezko diru mordoak mugitzeraino... zenbait interes makur (eta Makuar) ere tartean direla gurean. *Waka waka hei hei.*

Horren aurrean, hartu errugbia, futbolaren aspaldiko familiakidea. Jaio zenezko mamiari eutsi dio honek ere. Baina gainera, aberatsa dugu taktika eta estrategia

Errugbizaletzen hasi naiz



UNAI UGALDE
(Elektronikan ingeniaria)

aldetik, gorpuzkera guztietako jokalariek (ez bakarrik lerdene) joka dezakete, arbitroaren berba sakratua da, eta... parranda txertatuta daroa.

Eta geure-geurea dugu: taldeak dau- de EHko bazter gehienetan, Bizkaian zer esanik ez (Gernika, Mungia, Arratia...), ahaztu barik Frantziako goi mailan dabil- tzan lapurtar biak, Baionakoa eta Biarri- tzekoa. Laster dira derbia jokatzekoak, non eta Anoetan, martxoaren 26an, sa- gardotegiak zabalik daudela. Bazatoz?

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.
Horma-Armairuetan eta Erreformatan Epezelatutak
Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209
www.altzari.com
altzari@altzari.com
Luisine, 2 - Belako Elkarte, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

ANULACIONES SEPTICAS
MUNGIA
Garbitzeki eta mantentze-lanak | Ezteñak
Tututak | Moki septikoa
24 orduko zerbitzu
Pino, 2C, 4. solairu | 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 44675 99
mungia@saneamientosmungia.com | www.saneamientosmungia.com

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bizkaito Txakolina
Produktuak de sarri
Gorritze bidea, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak badaki azken 30 urtetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzeko mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri antitez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzipio eta hel-

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

buruetan letra larriz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAEn, Nafarroan eta Iparraldean oso egoera desberdina bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeek sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun errore bati begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, guren aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joera... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektrotresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan horiek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerro soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoa ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du taimainako apustua, eta euskal kulturak ere bai.

AIKOR! gehi beste 77 euskarazko hedabide

*"400.000tik gora
biztanlek kontsumitzen
ditu euskarazko
hedabideak, eta bertan
600 langile baino
gehiagok dihardugu"*

*"Bankuen, autoen,
elektrotresnen...
salbamendu garaian,
guk ere sostengu
sendoagoa
aldarrikatzen dugu"*



Euskararen Eguna, Politeknikoan

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an da, baina Txorierrri Politekniko Ikastegian otsailean ospatzeko ohitura dute, eta aurten ere horrela izan da hilaren 11n. Goizeko hotzari aurre egiteko, txokolate beroa eskaini zieten ikasle eta ikasleei, eta gorputza berotu ostean, lehiari ekin zioten: areto-futbolaren finalak, penalti jaurtiketak, txingak... Korrika 17ren denda ere izan zen Politeknikoan, eta ikasle eta irakasleek materiala erosteko aukera izan zuten bertan. Sariak banatu ostean, bertso bazkaria izan zuten. Mikel Goiriena eta Lander Ibarluzea "Aitxulua" bat-batean aritu ziren ekitaldian.

Etxebizitzaren zozketa

Sukia eraikuntza enpresak 60 itundutako etxebizitza zozketatuko ditu Landabarri Derioko bizitegian, eta zozketan Txorierrin lan egiten duten pertsona guztiek hartu ahal izango dute parte. Etxebizitzek garajea eta trastelekua dituzte, eta horien prezioa aurreko zozketetako irizpide berdinen arabera kalkulatu da; hau da, unean-unean indarrean dagoen BOE modulua 1.7z biderkatuz. Etxebizitzak jabetzan emango dira, eta jabeek lehentasuna izango dute bizitegi berean kokatuko den Landabarri kirol elkartearen erabiltzeko. Izena emateko epea apirilaren 3ra arte egongo da zabalik: www.sukia/derio.

Nekazaritza ekologikoa, Larrabetzun

Txinpasmendi Larrabetzuko gurasoen elkarteak nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu dute elkarte hauen laguntzarekin: Mugarik gabeko albaitariak, Ekologistak Martxan, Gorpide eta EHNE nekazarien sindikatua. Ikastaroa martxoaren 15ean eta 29an, apirilaren 12an eta 26an, maiatzaren 10ean eta 24an, eta ekainaren 7an eta 21ean emango da eskolako ortuan, arratsaldeko 5etatik iluntzko 8etara.

Ikastaro teorikoa eta praktikoa izango da, eta, besteak beste, gai hauek landuko dira: hazitegiak, satsa eta lurra ongarritzea, soroaren eta

lurraren prestaketa, landatzea, uztaren zaintza, eta gaixotasunen eta izurriten kontrola. Gainera, interesdunak eta denborarik egonez gero, gai hauek ere jorra litezke: fruta-zaintza eta lurren identifikazioa.

Ikastaroa EHNEk emango du eta 15 lagunentzako tokia egongo da. Doan izango da.

Izena emateko epea martxoaren 9ra arte egongo da zabalik. Horretarako, interesdunaren izena eta telefono zenbakia utzi behar da gurasoen elkartearen postontzian, edo mezu bat agindu txinpasmendi.guraso@gmail.com helbide elektronikora. Erreserbak eskaerak heldu ahala egingo dira.




**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

**TXAKOLINA
LUISARRE**



11% Vol. 75cl.

Garaioltza, 87
Tel: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak bilda, prestatu eta botillaratu
LEZAMA-SPAIN
N.R.E. 48 / 40558 / BI

pro audio
SOINUEN ADITUAK

Txorierrri et. 15
48150 Sondika bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nobigazioa
- telefonis
- segurtasuna
- inbiketa
- pertsonalizazioa

**TXORIERRRI
Inmobiliaria**

Justo Aljuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arragundik gerta

ARROLKULARTZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERBISTETAK
SEGUROR BILBARRAKEN AGENTZIA



Altzorak bazkidetza kanpaina zabalduko du

Aurreko hilabeteko alean jakinarazi genuen bezala, euskara elkarteak sortu da Sondikan. Elkarteari Altzora jarri diote izena. "Altzo hitzak magal esan nahi du, eta gurasoek seme-alabekin egiten duten bezala, euskara gure magalean eduki eta zaindu behar dugu", azaldu dute. Elkartean 15 partaidea daude, baina bazkidetza kanpaina laster zabalduko dute. Bitartean, euskara elkartean izena eman nahi duenak helbide elektroniko honen bitartez egin dezake: altzora.ee@gmail.com. "Eskatzen ditugun baldintza bakarrak hauek dira: alde batetik, euskaltzalea izatea; eta bestetik, gogoia eduki-zea".

Datozen hilabeteetarako hainbat ekitaldi antolatuko dituzte, sondikoitarrei elkartearen berri emateko. Horrela, martxoaren 11n eta 12an inauteriak izango dira herrian eta jaia aprobetxatuko dute triptikoak banatzeko. Horrezaz gainera, Taberna Ibiltariak kantu-saioa eskainiko du tabernarik taberna.

Altzora euskara elkarteak helburu hauek dituela sortu da: euskara sustatzea, Sondikan euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea, mota guztietako ekimenak euskaraz antolatzea, herriko euskaldunen sarea zabaltzea eta sendotzea, eta Txorierriko beste euskara elkarteekin elkarlanean aritzea.

Albertok eta Iñigok titulua berretsi dute

"Sondikako Udala" Frontenis Txapelketaren finala oso parekatua eta lehiakorra izan da aurten. Hala ere, irabazlea egon behar da, eta Albertok eta Iñigok osatutako bikotea izan da. Bikoteak iaz ere jantzi zuen txapela. Beste alde batetik, Rafa eta Aritz bigarren postuan lotu ziren; Mikel eta Jon, hirugarrenean; eta Alaiñek eta Gorkak osatutako bikotea, laugarrenean. Frontenis Txapelketa seigarren aldiz egin da aurten, eta inskripzio-markak hautsi ditu, bertan 22 bikotek hartu baitute parte.

Trenbide-pasaguneen itxiera

Eusko Jaurlaritzak Mungia-Derio-Sondika bidegurutzean dagoen trenbide-pasagunea itxi egin du behin betiko. Pasagunea zirkulaziorako itxi bada ere, oinezkoentzat irekita jarraituko du. Itxierak zirkulazioa arintzea ekarriko du, autoek herrigunetik industrialdera joan-etorriak egin ahal izateko, ordezko bide bi sortu direlako. Horrela, bidegurutzea egin da Derio eta Sondika artean, eta autoek bide hori hartu ahalko dute Ugaldeguren industrialdera joateko. Era berean, Derio eta Zamudio artean badago beste bidegurutze bat, industrialdera sartzeko. Beste alde batetik, Santimami eta Maurikobaso auzoen arteko trenbide-pasagunea ere itxi egin dute behin betiko, zirkulaziorako zein oinezkoentzat.

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


LIBRERIA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Mojitoaren txokoa
Jaleguneetan
bezperetan
asteburuetan



ATARRABI

Erreimenterri, 14
48150 Sondika
Tel. 944 531 928
www.atarrabi.com

Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Kepa Herguedas Manso
Col. nº 48000757

María Conde Bilbao
Col. nº 48000983

Mixtina 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T. 944 711 639 - Larmizakiak: 670 985 885 - www.cdtxorierri.com

Nobedadeak, SKEn

Sondikako Kultura Etxean denbora luzea daramate filmak eskaintzen. Hala ere, horiek DVD formatuko pelikulak ziren, eta eskaintza apur bat zahar gelditzen zen ohiko zinemen ikuskizunen aldean. Urtarrilean formatu digitaleko filmak ematen hasi ziren, eta harrezkero azken nobedadeak ikusteko aukera izan dugu aretoan. Zinerako txartelak 2,5 euro balio du 12 urtetik beherako umeentzat; eta lau euro, gainontzekoentzat. Txartelak BBKren bitartez eros daitezke (Teleka orotarako kutxazainetan edo www.bbk.es webgunean), 94 431 03 10 telefonoan, edo aretoko txarteldegian emanaldia hasi baino ordubete lehenagorik hasita.

Kartel Lehiaketa

San Pedro eta Santa Luzia jaietarako Kartel Lehiaketa antolatu du Loiuko Udalak. Lehiaketan edonork har dezake parte, eta lanak apirilaren 1era arte aurkeztu ahaliko dira udaltxean. Kartelak DIN A3 formatuan aurkeztuko dira, kartoi mehe batean itsatsita, eta bakoitzak nahi beste lan egiteko aukera izango du. Kartelak gutun-azal batean sartuko dira, eta bertan zein kartelaren atzealdean hau idatziko da: "San Pedro eta Santa Luzia 2011". Era berean, beste gutun-azal itxi batean datu hauek zehaztuko dira: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Kartelen gaia librea da, hala ere, hurrengo testua agertu beharko da derrigorrean: "Loiuko jaiak 2011, San Pedro eta Santa Luzia".

Mozorroa dugu prest

Inauterien atarian gaude eta mozorroak ez ezik hainbat ekitaldi ere prestatzen gabiltza herriotan. Zalantza barik, Sondikakoak Txorierriko inauteririk entzutetsuenak dira, eta bertako lagunek herritar guztiei zuzendutako egitarau dotorea prestatu dute martxoaren 11rako eta 12rako. Hala ere, ez da festa bakarra izango, gainontzeko herrietan ere ekintza sorta zabalaz gozatzeko aukera egongo delako.

SONDIKA

Martxoaren 11n, barikuan

16:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.

16:30: Jolasak, eskolan.

17:30: Eskolako sardina, kalejiran (eskola-tik).

18:00: Pailazoak.

22:30: Herriko taldeen kontzertua: Identidad oculta eta Bluesak.

00:00: Kontzertua: Gatibu.

02:00: Erromeria: Luhartz.

05:00: Diskofesta.

Martxoaren 12an, zapatuan

11:30: Umeen parkea.

12:00: Tostadak aurkeztea.

16:00: Jubilatuentzako kafea.

17:00: Zirko tailerra.

18:00: Erromeria, Nagusien Etxean.

18:30: Mozorro desfilea (umeak).

19:30: Saria banatzea: umeen mozorro-



Argazkia: Inauterien batzordea

ganix
DINETAKOAK - OSAGARRIAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrerar Goiko kaletik)
tfnoa.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakaren Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 705

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatu: 1815

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

ak, tostadak eta erakusleihoak.

19:30: Txokolatada.

20:30: Kalejira, Deabru beltzak taldearekin eta fanfarre batekin.

21:30: Sardinen hilketak.

22:30: Talde lokalen kontzertua: Habemus ratas eta Hardcore.exe.

00:30: Erromeria: Trikiotz eta Dj on.

02:00: Sariak banatzea: Nagusien mozo-
rroak.

02:30: Erromeriaren jarraipena.

05:00: Diskofesta.

LOIU

Martxoaren 4an, barikuan

18:00: Haurren moztorra Lehiaketa. Izena emateko azken eguna: martxoaren 3a, Ludotekan.

18:30: Haurrentzako berbena, Bazen behin espazioa taldearekin. Sariak banatzea eta txitxi-burruntzia, frontoian.

Martxoaren 5ean, zapatuan

Afaria Loiu hotelean, LEKE taldeak antolatua. Prezioa: 28 euro, nagusientzat; eta 10 euro, umeentzat. Izena emateko azken eguna: martxoaren 2a (620 304 394 - Iñigo).

DERIO

Martxoaren 4an, barikuan

18:00: Dantza, musika eta txokolatada, kiroldegian.

ZAMUDIO

Martxoaren 4an, barikuan

17:30ean: Umeentzako ekitaldiak, Ludotekan.



Martxoaren 5ean, zapatuan

18:00: Tostada Lehiaketa, Adintsuen etxean.

18:30: Erromeria, Hirukote taldearen eskutik. Adintsuen etxean.

LEZAMA

Martxoaren 5ean, zapatuan

19:00: Artista Lehiaketa, umeen dantzak... frontoian.

21:00: Herri afaria, frontoian.

22:30: Moztorra Lehiaketa, saloi-dantzak, sariak banatzea eta diskoteka, frontoian.

LARRABETZU

Martxoaren 4an, barikuan

10:30: Festa, eskolan.

Arratsaldean: Ekitaldiak, kiroldegian eta kalean zehar.

17:00: Disko txiki festa, kiroldegian.

Ikastaroak, Hiru Bat taldearen eskutik

Hiru Bat Zamudioko dantza taldeak ikastaro bi antolatu ditu datozen hileetarako. Horrela, apirilean moto-tsak orrazten irakatsiko diote nahi duen guztiari, eta maiatzean banango dantza ikastaroa jarriko dute abian. Azaldu duten moduan, iaz dantza honen oinarriko ildoak irakatsi zituzten, Lagatzu euskara elkarteak antolatzen duen Euskal Astean hura dantza-tu ahal izateko. Baina aurtengo ekitaldirako zerbait txukunagoa prestatzea erabaki dute, eta horregatik buru-belarri arituko dira entsegetan. Ikastaroak nahi duenarentzat daude zabalik, eta izena ematea herriko eskolan egin beharko da apirilaren 1ean, 8an eta 15ean, arratsaldeko 4:15etik 6etara bitartean. Dantza taldeak ikastaroen gaineko zehetasun gehiago jakinaraziko ditu laster. Kartelen bidez egingo dute. Beraz, adi egon.



Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Asesun agentzia
Alianz
609 475 746
Mibuna, 6 dehesa
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 10 07
Faxa: 94 453 60 27

NARTEGIA - URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-ELABORAZIOA
Oskela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...
Plater aurrekoiznatu
Goiiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

GAMINIZ
JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N
www.gaminiz.com

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Ikastaroak antolatu dituzte Lagatzukoek

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak ikastaro bi antolatu ditu martxorako: bata, ardo-dastatzeari buruzkoa; eta bestea, umeen kantei eta jokoei buruzkoa. Ardo-dastatze ikastaroa martxoaren 15ean, 17an eta 18an izango da, eta Ana Larrañagak, Nerea Goñik eta Iñaki Lopezegik emango dute. Saioak arratsaldeko 7etatik iluntzeko 9etara izango dira Larragoiti jauregian. Bazkideek eta berbalagunek 20 euro ordaindu beharko dute; eta gainontzekoek, 30 euro. Bestalde, Umeen kantak eta jokoak ikastaroa gurasoei zuzenduta dago, eta egun hauek emango da: martxoaren 4an, 7an, 11n, 14an, 18an, 21ean eta 25ean. Saioak arratsaldeko 4:30etik 6etara bitartean emango dira eskolaren. Ikastaroa Elizalde gurasoen elkartearekin batera antolatu da, eta Itsaso Arrietak zuzenduko du. Izena emateko orduan 10 euro ordaindu beharko da. Ikastaro bietan izena emateko epea otsailaren 28ra arte dago zabalik. Horretarako, 94 452 34 47 telefono zenbakira dei daiteke, edo lagatzu@lagatzu.org helbide elektronikora mezu bat bidali.

Euskara eta kirolaren inguruko hitzaldia

Berbalagun egitasmoan dabil-tzanek hitzaldi bat antolatu dute martxoaren 18rako. Ekitaldian euskara eta kirola izango dituzte hizpide, eta han hauek hartuko dute parte: Gaizka Garitano futbol entrenatzailea, Haritz Gallastegi kirol kazetaria eta Miguel Madariaga Euskaltel-Euskadi Fundazioko presidentea. Hitzaldia berbalagunei ez ezik euskaltegietakoa eta institutuko ikasleei ere egongo da zabalik. Saioa goizeko 12etan izango da Derioko Gurea Aretoan.

Emakumearen Eguna



Martxoak 8 errebindikazio eguna da; aurretik egin den lana gogoratu eta berdintasunaren bidean pauso gehiago ematen jarraitzeko eskatzeko eguna. Emakumearen Nazioarteko Egunaren haritik, ekitaldi hauek antolatu dituzte Derion, Zamudion eta Lezaman.

DERIO

Martxoaren 8an, martitzenean

11:30: *Nesken alde, denon alde* ipuina, Kandelen argipean taldearen eskutik. Larrabarri baserrian.

17:00: "Los logros conseguidos por las mujeres, ¿están siendo respetados?" hitzaldia, Bagabiltza eta Sutondoan elkar-teeek antolatua. Larrabarri baserrian.

Martxoaren 10ean, eguenean

18:00: *Rosita y Carlitos* antzezlan, Pulmón de Gaia taldearen eskutik. Larrabarri baserrian.

Martxoaren 12an, zapatuan

13:00: Kontzentrazioa, Euskal Herria kalean.

Martxoaren 25ean, barikuan

19:30: Javier Mañonen elkarriketa, Gazte zentroan.

ZAMUDIO

Martxoaren zehar

Marchinlilac Lehiaketa, emakume idazle-en gida eta "Emakumea eta genero berdintasuna" atala, liburutegian.

Martxoaren 7an, astelehenean

20:00: *Eta Karmele?* antzezlan, Ainhoa Alberdi eta Iraia Eliasen eskutik. Zamudio-torren, Lagatzuk antolatua.

Martxoaren 8tik 15era

"Itsatsi hau zure horman" jarduera, Gazte estazioan.

Martxoaren 10ean, eguenean

19:30: *Encantadas* antzezlan, Oihulari Klown taldearen eskutik. Zamudiotorren. Ostean, kopaua.

Martxoaren 11n, barikuan

17:30: Maite Franko kontu-kontalaria, Ludotekan.

Martxoaren 12an, zapatuan

11:30: "Klik klak" umeentzako ipuin saioa, liburutegian.

LEZAMA

Martxoaren 8an, martitzenean

20:00: *Casting-ada* antzezlan, Ausartak taldearen eskutik. Kultura Aretoan.



Lotura

Bernoak lotzen ditu egurra eta burdina, trenbidea osatuz; eta trenak ahalbidetzen du gure herrien eta gure jendearen arteko komunikazioa, herri-lotura sortuz.

Argazkia: Begoña Olabarrieta,
Sondika-Goiri Argazki Taldea

LOIU GURENA
Unbexiki bidea, 9
48180 Laiu
Tel.: 94 453 00 49
loiu@gurena.com

DERIO GURENA
Zeroetxe Enparantza, 5
48160 Derio
Tel.: 94 454 48 08
derio@gurena.com

INDAUTXU GURENA
Gregorio de la Revilla, 28
48010 Bilbo
Tel.: 94 444 34 04
indautxu@gurena.com

Laster TXURDINAGAN ere
zabalduko dugu egoitza

www.gurena.com

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

- ADINEKOEN EGOITZA
- TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK



"Krisiaren errua guztiona da"

t/a: Gaizka Eguskiza

Zelan sortu da krisia?

Krisia finantza arloan sortu da. Jendeak maileguak merke-merke lortzeko aukera izan du, eta bankuek ere interesa izan dute hori hala izan dadin. Horrek hazkunde itzela sortu du eraikuntzan, prezioek ere gora egin dute eta ondorioz, aberastasun irudipena izan dute herritarrek. Beraz, kontsumo eta inbertsioa piztu egin dira, burbuila lehertu arte.

Eta burbuila zelan lehertzen da?

Espainian, burbuila martxan egon denean, atzerriko aurrezkiak bertaratu, eta batez ere etxebizitzara bideratu dira. Baina aurrezkiak itzuli egin behar dira momenturen batean. Antzeko gauza bat gertatu da Estatu Batuetan: ea mailegu gehiegi eman dituzten galdetzen diote euren buruari, eta zalantzak hasten dira orduan. Olatua Ameriketara hasi eta hona beranduago ailegatu zaigu.

JOSEBA BARANDIARAN | ekonomialaria

Azken bolada honetan, krisiari buruz hitz egiten dugu guztiok, eta batzuetan ez daukagu argi zeintzuk diren haren arrazoiak. Joseba Barandiaran ekonomialariak hitzaldi bat eman du, Lagatzu Zamudioko euskara elkar-tearen eskutik, gai honi buruzko argitasunak emateko.

Noren errua da?

Zaila da, krisia hainbat arrazoik eragin dutelako; hau da, guztion errua da. Erantzukizunaren zati bat bankuena da, baina ez bakarra, jendeak pentsatzen duen moduan. Zenbait etxebizitza saldu eta erosi egin dira, eta negozio horietan enpresa eta partikularrak ibili dira. Erakunde publikoek ere badute zer esan. Izan ere, hainbat lurzoru birkalifikatu egin dituzte dirutzaren truke, eta plangintza asko or-

daindu dituzte horri esker. Gainera, ez dituzte bankuak arretaz kontrolatu.

Non gaude momentu honetan?

Euskal Herria Espainia baino hobeto dabil, baina Europa baino okerrago. Langabezia handiagoa da, gaur egun askoz zailagoa da etxebizitza erostea, eta enpresek, baliabide gutxiago izan arren, lehia jarraitu behar dute. Erakunde publikoei dagokienez, diru gutxiago dute-nez, gastu soziala murriztu dute.



volconsa DIVISIÓ
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENAREN eskutik)

tel. 94 644 00 19 ■ faxa. 94 406 49 13
aislamientobilbao@volconsa.es ■ www.volconsa.es
Sollube, 1 - DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu BERRUN
Logopedia
Podologia

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txarriari etorbidea, 8 - Loria | Arteaga enakina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentaltzainduz.com | www.dentaltzainduz.com

Tamara
Lapata-denda Osagarriak

Herriko plaza, 2
Derio
94 656 67 27

Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Lerena
94 463 06 32
tamaraleioa@yahoo.es

Eta nora goaz?

Gure esku dago. Hainbat aldagai har-
tu behar dira kontuan. Gu beste batzuk
baino hobeto bizi gara, eta, horrela jarrai-
tu nahi izanez gero, beste lekuetan egi-
ten ez diren gauzak geuk egiten ikasi
behar dugu, hau da, berriztatzailerak izan
behar dugu. Orain arte ohiko industriak
izan direnak kanpora eramango dira eta
industria berriztatzailerak hasiko dira lanean.
Teknologian dago gakoa.

Krisiaren arrazoietako bat eredu ekonomikoa omen da, baina hori ez da zalantzan jartzen, ezta?

Zer da eredu ekonomikoa? Batzuek
diote eredu kapitalista dela; beste ba-
tzuek eredu kapitalista onartu eta haz-
kunde ekonomikoz hitz egiten dute.
Agian eredu kapitalista ez da zuzena,
baina zein da beste aukera? Nik ez dut
ezagutzen jendearen atxikimendua lor-
tzen duen beste bat. Garapen-bidean
dauden herrialdeak gure ereduari jarraitu
nahian dabilta: Txina, Brasil.... Zalantzak
sortzen dira, batez ere ikuspuntu ekologi-
ko batetik, baina munduan botere osoa
duen erakunderik ez dagoenez, ez da era-

baki bateraturik hartzen, eta konponbi-
dea zaila da. Planetaren jasangarritasuna-
ren mesedetan, prest egongo ginateke
geure kotxeetakoren bat kentzeko, txina-
tarrek auto bat izan dezaten, eta mundu-
ko kotxe-kopurua handiagoa izan ez
dadin? Egoera honek planetaren galbide-
ra eramaten gaitu.

*"Beste lekuetan egiten
ez diren gauzak geuk
egiten ikasi behar
dugu: berriztatzailerak
izan behar dogu"*

*"Finantza arloak
garrantzi handia du
ekonomian, eta hori
kezkagarria da"*

Bankuei ikaragarriko diru-lagun- tzak eman zaizkien arren, oraindik di- rua irabazten jarraitzen dute. Benetan behar-beharrezkoak ziren diru-lagun- tzok?

Bai. Estatuan aurrezki kutxai eman
zaie laguntza; besteei –esaterako, BBVA-
ri–, ordea, bat ere ez. Aurrezki kutxa
horien atzean familiak eta enpresak
daude, gizartea bera, azken batean. Beste
alde batetik, esan beharra dago finantza
arloak garrantzi handia duela ekono-
mian, eta hori kezkagarria da. Nire ustez,
erakunde publikoek zorrotzago kontrola-
tu behar lukete finantza arloa.

Noiz bukatuko da krisia? Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Krisia esparru guztietan dago. Balore-
en krisian ere murgilduta gaude, kontsu-
moari izugarriko garrantzia ematen di-
ogu, lan kultura galtzen ari da, elkartasu-
na bultzatu behar da. Ez dakit krisia noiz
emango den bukatutzat. Ziurrenik etorki-
zunean ez gara hain ausartak izango di-
rua inbertitzen, baina hori ona da berez.
Gero eta hobeto goaz, baina bide luzea
dugu krisitik ateratzeko.



LA MONTAÑA MÁGICA 
Larunbata 5: 18:00etan
Igandea 6: 17:00etan

MORNING GLORY 
Larunbata 5: 20:30etan
Igandea 6: 19:30etan

DIARIO DE GREG 
Ostirala 11: 18:30etan
Larunbata 12: 18:00etan
Igandea 13: 17:00etan

EL SANTUARIO 
Ostirala 11: 20:30etan
Larunbata 12: 20:30etan
Igandea 13: 19:30etan



Antzerkia: "A pesar de ellos"
Ostirala 4: 20:30etan - Aztiak taldea - Prazioa: 3 €.

Hitzaldia: "Euskara kiroltasunez"
Ostirala 18: 12:00etan - Antolatzailea: Tximintx

Umeentzako txotxongilo antzerkia.
Konpainia: Kontakatilu. Titulua: "KATILUKADAK"
Igandea 20 17:00etan Prazioa 1 €

Osteguna 24. 19:00etan. "Errotik" liburuaren aurkezpena

VIDAS CRUZADAS (Short cuts)
Cine fórum. Sarrera doan.
Antolatzailea: Literaturazko tailerra
Asteazkena 30: 18:00etan



RAMONA Y SU HERMANA 
Ostirala 18: 18:30etan
Larunbata 19: 18:00etan

MÁS ALLA DE LA VIDA 
Ostirala 18: 20:30etan
Larunbata 19: 20:30etan
Igandea 20: 19:30etan

EL PEQUEÑO REY MACIUS 
Ostirala 25: 18:30etan
Larunbata 26: 18:00etan
Igandea 27: 17:00etan

PRIMOS 
Ostirala 25: 20:30etan
Larunbata 26: 20:30etan
Igandea 27: 19:30etan



GUREA ARETOA
Lainomendi kalea, 2 - www.derio-koudala.net



Artez beteriko moda-osagarriak



t/a: Itxaso Marina

Arteagaz oso hartu-emon estua dauen gaztea da Iker Landeta zamudioztarra. Artearen Historian dago lizentziauta, eta gidari lanak egiten ditu Bilboko Arte Eder museoan. Ganera, kolaborazioak egiten ditu Euskadi Irratiko saio baten, eta entzuleei margolan bat deskribatzen deitue hertziar uhinen bidez. Orain, beste alderdi bat azaldu deusku: moda-osagarrien diseinuak be egiten ditu.

Oso deigarriak dira Ikerren eraztunak, eskuturrekoak, paparrekoak eta diademak. Koloretsuak eta ikusgarriak. Eta berezitasun bat be badaukie: silikona erabiliz egiten ditu. Zamudioztar hau orain urtebete hasi zan moda-osagarriak diseinaten, eta aspaldian lagun batek oparitutako eskuturrekoak dau horren errua.

“Begizta gorri bat zan, silikonaz eginiko biribilak zituana. Ikusmina sortzen eban jentearengan; eta nigan be bai”. Diseinu sinpleak egiten hasi zan, baina beharrak ikerketarako grina ekarri eutsan eta apurka-apurka jolasten joan da euskarriakaz, koloreakaz eta alezko apaingarriakaz. Bere moda-osagarrien orijinaltasuna da emaitzea, inguru honetan ez dagoalako halako lanak egiten dituan beste inor. “Moda-osagarri bereziak dira, eta esklusiboak, diseinu bakotxa bakarra dalako. Osagarri modernoak dira, desbardinak, edonork eroan leikezanak, eta boltsiko guztientzakoak”.

Silikoneagaz behar egitea ez da erreza. Formea emon behar jake aleei, koloreak nahastau, silikonera sikatu, euskarri egokia aukeratu... Baina Ikerrek ez deusku azaldu zein dan moda-osagarriok egi-

*“Bereziak dira,
eta esklusiboak,
diseinu bakotxa
bakarra dalako”*

teko jarraitzen dauen prozesua. Sekula ez deuto inori esan, prozesu hori be bere diseinuen xarmaren zatia dalako. “Pazientzia eta pultsu handiak euki behar dira, hori baino ez dot esango”. Salgai jarri baino lehen, eraztunak, diademak eta besteak jantzen ditu lagun batek. “Berak esaten deust erosoak diran, handiegiak, arinak, deigarriak...”

Margolanetan oinarrituta

Arteak ezinbesteko lekua dau zamudioztar honen bizitzan, eta bere sortze beharretan nabari da hori. “Askotan, margolanetako koloreak hartzen dodaz erreferentziatzat, eta antxinako errege-erreginek erabilten zituen eraztunei be begiratzen deustet arretaz. Ez dakit halanbeharrez gertatzen dan, baina batzuetan, ale bat egin ostean, konturatzen naz bertan ipinitako alezko apaingarriak badaue la eskultore-lanen baten antza”. Bilboko Arte Eder museotik margolan baten oinarritutako moda-osagarri sail bat diseineteko eskatu deustie, berak be artea egiten dauelako, beharbada. Eta Carlos Sauraren *Las tres gracias* margolana aukeratu dau behar horretarako. Buru-belarri dabil enkarguagaz. Era berean, etenbako ikerketan murgilduta dabil, etorkizunari begira apaingarri, gai eta teknika barriakaz saiatu gura dauelako.

Ikerrek Madrilgo denda bitan eta Txorierriko hiru establezimendutan jarri ditu salgai bere diseinuak: liburu-dendan eta Rafi tabernan, Zamudion; eta Goizalde ule-apaindegian, Larrabetzun. Esan deuskuaren arabera, ondo baino hobeto saltzen dira.

Informazino gehiagorako:
trikipunki@hotmail.com



Euskararen lasterketaren motorrak berotzen hasi dira

Otsailaren 13an, domekan, 100 lagun inguru batu ziren Larrabetzuko Elkartegian. Zertarako? Korrikaren arduradunek argazkiak egin behar zituzten euskararen aldeko lasterketaren aurtengo edizioaren kartelerako, eta argazki-saioan parte hartzeko gonbidapena txorieritarroei luzatu digute oraingo honetan. Petoak jantzi, korrika egin, barreak, ilusioa, argazkiak... laster lanaren emaitza ikusteko aukera izango dugu. Hala ere, hau ez da lehenengo aldia izan txorieritarrok halako beharretan ibili garena, Belen Gana Txepetxa AEK euskaltegiko arduradunak gogorazi digutenez, Korrika 12.aren bideoklipa eta kartela ere Txorierriin egin baitziren; Teknologia Parkean, hain zuzen ere.

“Maitatu, ikasi, ari... euskalakari” lelopean, Korrika 17k apirilaren 16an zeharkatuko du gure bailara, baina aurreko egunetan ere hainbat kultura ekitaldi izango ditugu, motorrak berotzen hasteko.

“Txorierriin sare handia sortu da Korrikaren inguruan, eta hori ez da inon lortzen”

Horren haritik, Korrika batzordeak lanean dabilta herri guztietan, eta dagoeneko ekintza batzuk zehaztu dituzte.

Korrika arroparen desfilea egingo da martxoaren 25ean, Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean, eta umeei zuzendutako ekitaldien artean, Zirika Zirkus eta Eidabe taldeek eskainiko dituzten emanaldiak azpimarra ditzakegu. Lehenengoak *Zirika zirkaos* lana aurkeztuko du martxoaren 28an; eta bigarrenak *Lore power* lana, martxoaren 29an. Gainera, Txorierriko ikastetxeetako gaztetxoek Korrika Txikia

egingo dute apirilaren 8an, Derion, eta eskuz esku pasatuko diote elkarri euskararen lekukoa. Helmuga herriko plazan egongo da, eta parte-hartzaileek aldeztu aurretik prestatutako abestiak, bertsoak, emanaldiak... jendaurrean antzetzuko dituzte. Aurreko egunerako, apirilaren 7rako, txangoa antolatu da Trebiñora, Korrikaren hasiera ikustera.

Lan komuna agerian

Korrika batzordeek afariak eta bazkariak ere egingo dituzte. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak eta Zorritzeta Lezamako euskara elkarteak, esate baterako, bertso afaria izango dute apirilaren 15ean, eta sondikoztarrek txokolatada, umeen jokoak eta herri-bazkaria egingo dituzte Korrika pasa ostean. Loiuak eta Erandiokak apur bat lehenago edukiko dute afaria: apirilaren 8an eta 9an, hurrenez hurren. Beste alde batetik, Tximintx Derioko euskara elkarteak *Laburbira* film laburren emanaldia prestatu du apirilaren 14rako, eta apirilaren 17an autobus bat irtengo da Donostiarantz, Korrikaren amaieran parte hartzera. “Eskertzekoa da Korrika batzordeek, euskara elkarteek, ikastetxeek eta herritarrek egiten duten lana. Herri bakoitzean proposamenak egiten dira, ekitaldi hau edo bestea antolatzen da, baina herri bakoitzeko lana ez ezik lan komuna ere lotzen da agerian. Izan ere, Txorierriin sare handia sortu da Korrikaren inguruan, jendetza handia azaltzen da laguntzeko eta babesa emateko prest, eta hori ez da inon lortzen. Euskarak eta Korrikak baino ez dute lortzen”.

Lehen aipatutakoak aurrerapena baino ez dira izan. Martxoaren 11n, iluntzeko 8etan, Korrika 17 aurkeztuko da Lezamako Uribarri Topalekuan, eta han euskararen lasterketaren eta horren harira antolatuko diren kultura ekitaldien berri emango digute. Txorierriar guztiak gauden gonbidatuta.

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-esetika
HORTZ-PLANTAEK - ORTUDUNTZA-ESTETIKA
DENTAR-EPILAZIOA

Dr. Aritz kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 62 22
Uribetxe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euskoalduna er. 7, 1. planta
48001 Bilbo Tel: 94 438 80 10 - Faxa: 94 438 67 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel: 94 452 21 25 - Faxa: 94 452 30 74

Garmendia
ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Ekidazu argiaren eta amodioaren urian kantu kantari

t/a: Ekidazu

Entzun dira, zoli eta afinauta, gozogo-
gozo eta emozionatuta, Lezamako aho-
tsak Parisen! Emonaldia XVII. Koru-kan-
tuaren Nazinoarteko Topaketaren ba-
rruan eskaini genduan, urtarrilaren 28an
eta 29an. Gugaz batera, Mahatsorriak
Txurdinagako abesbatzako sei gizon eta
Udalen Zornotzako abesbatzako bost
andra be joan ziran, abesten laguntzeko
eta taldea apur bat handiago egiteko.
Danak, Miren Zubietaren zuzendaritzape-
an. Poz-pozik etorri gara esperientziagaz!

Abeslariak eta zuzendaria, 34 andra-
gizon...; eurei laguntzeko, Parisen galdu
ez daitezkan, eta kantu bakotxaren amaie-
ran txalo zaparradak botateko prest,
beste 13 lagun...; guztira, 47 persona a-
biatu ginan urtarrilaren 27an, eguen arra-
tsaldez, Hendaian AHTa hartuta Montpar-
nasse Pariseko tren-geltokirantz.

Montparnasse geltokian Sandrine
turismo gida xarmagarria euki genduan
zain, bertako autobusaz antolatzaileek

*“Emonaldi bi eskaini
genduzan: bata, Mériel
herrian, eta bestea,
UNESCOren egoitzan”*

adostu eben hotelera eroateko, eta bide-
an lehengo azalpenak eta ezaupideak
egiteko. Segiduan jakin eban Ekidazu
koru-talde euskalduna zala, eta ez espai-
niarra.

Affaire gizon-emakumeentzako pen-
tsauta dagoan Ibis hotel funtzionalean lo
egin ondoren, Pariseko “zeharbiderik” za-
bal-ederrenetik egin genduan joan-eto-
rria. Sena ibaiak emoten dau, duda barik,
uriko etxe ezagunen ikuspegiak berezie-
na.

Eta iluntzerako, ahotsak ondo berotu
eta gero, heldu zan “do” eta beste nota
guztiak emoteko lehenengo momentua:
“Adiskidetasun” kontzertua, Paris erraldi-





tik 30 km-ra dagoan 2.500 biztanleko Mériel izeneko herri txikian, beste abeslari talde honeekaz batera: Eh si on chantait (Frantzia), Schola Cantorum Voci Bianche Di Calcio e Cividade al Piano (Italia), eta Les Troubadours des Ponts (Frantzia). Aidean geratu ziran euskal folkloreko hamar bat abestiren harmoniak, entzuleen gozamenerako.

Biharamun goizean, zapatuz, baegoan zer ikusi eta zelan hotza kendu (eta derrigorrean zer aukeratu goizaren ordu laburrak ondo aprobetxetako): Eiffel dorrea, Notre Dame katedrala, Louvre eta Orsay museoak, Boulevard handiak, auzo latinoak, La Défense, Monmartre, La Bastille, Les Camps Elisées, eta abar eta abar. Gorabeherak, anekdotak, barreak, uzualdiak, ezustekoak, argazkiak, erosketak...

Izar-unea

Eta arrasti-iluntzean, UNESCOren e-goitzan, bidaiaren izar-unea: han batu gitan 15 bat kora, Frantziatik, Italiatik, Alemaniatik, Brasiletik eta Euskal Herriatik etorriak, bakotzak bere folkloreak abesti bat emoteko, eta gero danok batera Aimer à perdre la raison kantu frantses ezaguna interpretetako. Han be, Mirenen

*“Mendirik mendi
abestiaren bitartez
azaldu zan
Ekidazu taldearen
euskalduntasuna”*

irrintziaren eta *Mendirik mendi* abestiaren bitartez, azken finean musikaren bitartez, modu inplizituan (eta esplizituan) azaldu zan Ekidazu taldearen eta bere lagunen euskalduntasuna.

Domeka goizean, barriro be txapaxapa Pariseko kaleetan zehar, falta ziran ordu oraindino laburrak aprobetxatuz gurean: Les Puces merkatua, La Madeleine, Les Tuilleries, Le Sacre-Coeur, Pigalle, L'Opéra, La Sainte Chapelle, Les Invalides, Pompidou museoa... Erosketak, argazkiak, metro-bidaia eta ia-ia anekdotetarako astirik be ez. Eguerdi ostean, ia-ia arnasa barik (eta kronika labur honetan ia berba barik): Montparnasse (AHT)-Hendaia-Lezama itzulera-ibilbideari ekin geuntsan: neke-neke eginda baina aste-buru zoragarria oroimenean gordeta.

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GORDOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 96 Mungaiate etorbidea, 25
Fax 94 454 14 12 48180 DERIO

am
Formación y Traducciones
• Ingelera maila gutxiesten
• Eskolak enpresetan
• Cambridge Unibertsitateko azterketak prestatuta, TOEFL...
• Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan
Garaioetza 120 D 48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69 Errementeri 16 48150 SONOIRA
T: 94 453 64 08
amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA
94 656 72 25 ARALAR, 4 DERIO

elekma
URRIATZEN BAT GUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIETAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK
Leherengo markak • Presarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Tasari etorbidea, 25-3. N 48180 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA
Laurietate etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

"Argazki bakotxa erronkea da"

JOSEBA APEZETXEA | Argazkilaria

Kamarea 10 urte zituala hartu eban lehenengo aldiz. Diana markako argazki-kamarea zan, plastikozkoa, eta oraindino beira-arasa baten dau gordeta, bere ibilpide profesionalean zehar erabili dituan beste kamarakaz batera. Gehienok Oskarbi fotografoak Zamudioko dendan erakusgai dauan beharrari begira izan gara inoz, liluratuta. Izan be, Joseba argazkilaririk estimaduenetariko bat da; Txorierrin ez eze, gure mugetatik kanpo be bai.

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

t: Itxaso Marina / a: I. M., Joseba Apezetxea

Aurkakoak egon arren, argazki batek 1.000 berbak baino gehiago adierazoten dauka dinoe... Topikoakz hasi gara.

Bai, argazki bakar batek adierazoa ahal dituan informazioa, sentimentuak, sentsazioak... ugariak dira. Gainera, ikuslearen begien arabera irakurketa bat edo bestea egin daiteke, eta argazki horretatik ondorio edo eretxi ezberdinak ateratu.

Eta zu, noiz harrapatu zinduzan objektiboak?

Gurasoak Bilbora etorri ninduen jaunartzerako argazkiak egitera, eta argazki-dendan topau nituan argiek, kamarek, tresnek... liluratu ninduen. Mendira joaten nintzanean, eguzki-izpiak eta lainoa batzuan sortzen zuten argi-efektua itzel gustatzen jatala gogoratzen dot. Lehenengo argazkiak 10 urte nituala hasi nintzan ateraten, eta 18 urte bete nituanean buru-belarri sartu nintzan argazkigintzan, ikastaroak-eta egiten.

Ogibidean 22 urte daroazuz. Argiak lehengo moduan erakartzen zaitu; gehiago?

Argiagaz jarraitzen dot maiteminduta. Koloreek, formek, pertsonen hazbegiek... be asko erakartzen nabe. Bestalde, planeta, herria, inguru... egunero gabiltz aldatzen, eta parajeak, bazterrak... kamareagaz harrapetea gustatzen jat. Gure atzetik datozen lehenera zer egoan jakin daie; eta guk lehenera zer egoan ez ahaztuteko.



*“Erretratuak egitea
pilo bat gustatzen jat,
gauza asko adierazo
daitekezalako
arpegiakaz,
gorputzakaz...”*

Argazkilaritza barruan, arlo bat baino gehiago jorratzen dozu.

Industria-argazkilaritza, jaunartzeak eta ezkontzak, moda, erretratuak, biluziak...

Zein gustatzen jatzu gehien?

Erretratuak egitea pilo bat gustatzen

jat, argazkian azaltzen dan pertsonak gauza asko adierazo daitekezalako bere arpegiagaz, bere gorputzagaz... Denporearen igarotzea be adierazo daiteke erretratu baten bidez. Baina erretratuez aparte, beste batzuk be gustatzen jatatz: moda, biluziak eta paisajeak, esate baterako. Arlo batetik bestera emondako pausua era natural baten egin dot; bezeroek halan eskatu ahala hasi nat arlo bat edo bestea jorratzen.

Oraindik, argazkilaritza, badozu ikutu bako arlorik?

Laster hiru dimentsinoetako argazkiak jorratzen hasteko asmoa dot. Egon nasai, horreei begiratzeko, ez dogulako betareko berezirik jantzi beharko. Eta amets egiteko aukerea dogunez, inoz argazkilaritza-zuzendari bezala zineman lan egitea gustauko litxakit.

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

Gatxa da personen "alde ona" topea?

Gatxa da personakaz behar egitea. Konexino berezia euki behar dozu argazkia aterako deutzazun pertsonaegaz. Lortzen ez bada, ez gagoz eroso, ez bera, ez ni, eta kostau egiten da behar egitea.

Gatxagoa umeakaz, beharbada?

Batzuk ikaratu egiten dira estudioara sartzen diranean. Baina erlaxatzea lortzen bada, une zoragarriak eskaintzen dabez kamareagaz harrapeteko.

Publidade-kanpainak be egin dozuz, zelan modelookaz?

Nik ez dot arazorik euki modeloakaz. Euren beharra da, eta oso erraza da eura-kaz behar egitea.

Gizabanako arruntengana bueltauta, fotogenikoak ez diran uste osoa dabe batzuek. Inoz kostau jatzu baten bat fotogeniko bihurtzea?

Bai! Dana dala, hori norberaren jarreari lotuta dagoan kontua da. Gai psikologikoa da. Estudioara argazkian txarto aterako zarala pentsaten sartzen bazara, txarto aterako zara. Ez dago zer eginik.

Zelango argazkilaria zarala esango zenduke?

Arrunta. Baina oso kritikoa naz neure buruagaz, eta etenbakoko ikaste-prozesuan nago murgilduta. Nire ustetan, beti dago zer ikasi eta zer hobetu. Oso zorrotza naz.

Zer da argazki bakoetza?

Erronka handia. Oso urduri jarten naz beharrean hasi behar nazen bakoetxean:

"Oso kritikoa naz neure buruagaz, eta etenbakoko ikaste-prozesuan nago murgilduta"

"Sortzaileago sentiduten naz, zuri-baltzeko beharrak lantzen dodazanean"

irudia eta horren konposizinoa bu-ruan imajinatu, argia nondik sartu behar dan erabagi, modelo jarri alde batera edo bestera begira, zehetasunak era batean edo bestean zaindu, adierazo gura dodanaren arabera... Hori bai, izotzaldia urtzen danean, eroso sentiduten naz normalean. Ideak sortzen dira.

Ez dakigu hainbat urtetan zenbat argazki eukiko dituzun aterata; badago baten bat berezia danik zuretzat?

Gehienak dira bereziak, baina aukeratzekotan, azken bost urtetan egin dodanaz galdutuko nintzateke. Zuri-

beltzeko argazkiak egitea gustaten jat, eta horreekaz muntaketaren bat egitea. Sortzaileago sentiduten naz halako beharrak egiten dodazanean.

Zuri-beltzerako zaletasun hori oso nabaria da zure beharrean. Argiagaz maitemindua zagozala esan dozu lehen; zuri-baltzagaz be bai?

Koloreek euren lengoia dabe, erakar-garriak dira eta ikutua emoten deusie irudiari. Baina, argazkiaren bitartez zer adierazo gura dozunaren arabera, zuri-baltza egokiagoa izan daiteke, beharbada. Erre-tratu bati jagokonez, esate baterako, argazkian agertzen dana kolore biziz jantzita badago, ikusleak horren arropari erreparauko deutso. Eta nik arpegiari erreparau degiola gurago dot, begiei, hazbegiei... Hori zuri-baltzagaz lortzen da. Erre-tratuen gainean egin dot berba, baina paisajeen kasuan be efektu bera lortu daiteke zuri-beltzagaz. Bai, zuri-beltzagana-ko joerea dot.

Mundua gurutzatu daben irudiak doguz erretinan. Zure beharrak be mundua gurutzatzea gustauko litxakizu?

Jakina! Eta era baten edo bestean halan dala pentsetea gustaten jat. Izan be, lehiaketetara aurkeztu dodazan beharrak argazki-bildumetan sartu dabez kideek egindako beste behar batzuek batera. Eta argazki-liburu horreek leku batetik bestera ibiltzen dira; edonork ikusteko modukoak dira. Nire argazki bat, adibidez, FEPFI federazinoko bulegoan dago jarrita, Palentzian. Eta leku hori be mundua da.



Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

**MODA
INFANTIL**
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Goya sarietara proponidua



FEPFIK (Argazkigintzan eta irudian diharduten profesionalen Espainiako Federazioa) argazkilarik gailen izendatu eban Joseba orain dala hilebete gitxi. "Oso garrantzitsua izan da niretzat; adore-injekzio bat. Gogor ekin deusatz beharri azken sei urteotan, eta gauzak, apurka-apurka, hobeto egiten ditudala ikusi dot azkenean, ikasten nabilela. Izendapen horrek nire beharra estimadua dala adierazo gura dau, eta hori nahiko ona dala".

Zamudioztarren argazkiek xarma dabe; txukunak, orijinalak eta adierazgarriak dira. Eta horregaitik Josebaren beharra hainbat aldiz proponidu dabe Goya sarietarako. Bai, Goyetarako. Horeek ez diralako bakarrik zinemari lotuta dagozan sariak; argazkigintzan be emoten dira. Halan, 2005. urtean sor-

kuntza libreko argazki bi euki zituan proponiduak sarietarako; eta beste bat, 2009. urtean. Aurton be argazki bat euki dau industria-argazkilaritza kategorian. "Ez da saririk egon, baina argazkiak lehiaketara sartze hutsa saria izan da. Izan be, 40 argazki baino ez dira aukeratzen Goyetarako, eta azken edizinoan, esate baterako, 600 behar aurkeztu dira". Era berean, Josebaren argazkiak Asturias eta Valentziako erkidegoek emoten dabezan sarietan be izan dira finalistak. "Los Quijotes Gaztela-Mantxa erkidegoak antolatzen dauan lehiaketara erretratu batzuk agindu dodaz, eta oso itxaropentsu nabil, oso behar onak dirala pentsaten dodalako". Kideen beharraz galdegin jakonean, horren kalidadea nabarmendu dau. "Gero eta profesional handiagoak dagoz bai Estaduan, bai Bizkaian bertan. Gainera, bertoko lagunek grina handia dabe ikasteko eta ahal daben mailarik altuena emoteko".



EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etik 19:30ra arte
20:00etatik 23:30ra arte
Etara eramateko
zerbitzua: 1 €

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

**GOIKO
TABERNA**

Taberna-jatetxea
Emisario

- Mero berriak asteburuetan
- Etara eramateko platerak
- Itxialdi asteburuetan
- Eguzki meroa eta karta
- Jaurerriak eta edonak
- Jantzi zabalak

R.ª Guriatze, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

17. ^{dek}korrika
eus*alakilip
lehiaketa
www.korrika.org

SARIA: Mac gailu bat

BIDEA SORTZEKO BALDINTZAK:

Bideo-Klip formatua (bideo laburra) erabiltzea.

Bideoek gehienez 3 minutuko iraupera izatea.

Korrika 17ren leloa, **Maitatu, ikasi, ari... euskalakari**, gutxienez behin erabiltzea.

BALDINTZA TEKNIKOAK:

Bideoaren formatua: MP4 edo AVI

Gehienezko tamaina: 50 Mb

Bidaltzerakoan, ZIP formatuan helaraziko da, hau da, konprimatuta, eta mezuzaren goiburua Euskaklip izango da. Parte-hartzaileei derigomez erabili beharreko 3 segundoko bideo samera helaraziko zaie bideo guztiak berdin has daitezen. Bideoak korrika17@gmail.com helbidera bidali beharko dira.



Bazkideak, geure



Alfon Atela, Taberna ibiltaria musika taldeko kidea

Baserri Antzokia euskaldunok eta euskaltzaleok behar-beharrezkoa dugun egitasmoa da. Gure aisialdia euskara hutsean bideratzeko holako lekurik ez dugu inoiz euki, eta hori Txorierrin lotsagarri eta guzurra dirudi. Gure edadekoek faltan bota dogu orain arte, eta ahalegin guztiak egin behar doguz gure atzetik datozanek faltan bota ez daien. Zalantza barik dandanon probetxurako izango da eta danon artean atera behar dogu aurrera. Aurretik dabilzanek, gurdi honetatik tiraka, dominarik handiena merezi dabe.



Elena Valdueza, tabernaria

Oso proiektu interesgarria dela uste dut. Aparteko egitasmoa da, zeinetan kultura eta aisia uztartzen baitira, helburu bera dutela: euskara.



Oskar Eguskiza, Hegalariak areto-futbol taldeko kidea eta berbalaguna

Ahalegina kirolagatik ez ezik euskaragatik ere egitea merezidu.

Jesus Aurtenetxe, Aurtenetxe SL enpresako nagusia

Honen moduko egitasmo bat aurrera eroateko beharrezkoa da danon parte-hartzea. Horregaitik ez dot zalantzarik izan eta Baserri Antzokiaren kide egin naz.



Iñaki Zarate, txakolin-egilea

Baserri Antzokian parte hartzera bultzatu nauena hau izan da: bertan euskararen alde egingo den apustua. Gainera, txorierritarron arteko harremana sendotzeko ere izango da baliagarria. Eskertzekoa da Totoanek eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak proiektua aurrera ateratzeko egin duten ahalegina. Eta etorkizunean, jakina, guztiok gogoratuko gara euskara sustatzeko egindako esfortzuarekin.



Angel Garitano "Ondarru", futbol entrenatzailea

Egitasmo erakargarria iruditzen zait, euskara sustatzeaz gainera, bertan euskal kulturak ere baduelako lekua.

Juanekxu Bilbao, jubiladua

Baserri Antzokia txorierritarrok behar genduan topalekua da. Beste urrats handi bat da, orain urte batzuk Aikori aldizkariaren kaleratzea izan zan lez, gure herriak gehiago batzeko eta euskerari beste bultzada bat emoteko. Zorionak.



izarrak



Belen Gana, Txepetxa AEK euskaltegiko arduraduna
Gure Baserri Antzoki hau kultura disfrutatzeko erreferentzia izan dadila.



Joseba Zarate, udal euskaltegiko irakaslea
Euskerea atxakia, martxan jarri jaku Baserri Antzokiaren "trena" geldiro, baina artez eta gauzak be argi, atzera zirkulatu egin barik, danok lagun euskal bilgune barria dogu ate joka. Euskerea be, danona legez, "Baserri" honetan be, danona dogu errota barri dan itxaropena. Geure hizkuntza itzela, egundokoa eta zoragarria da, akaso "azken mohikanoa", baina jakizue be derrigorrezkoa dogula ereitea, honelako esperantza, sikan, ez gaitzeko.

Gurutze Rola, Gure señaak elkarteko kidea
Ideia hauek azpimarratuko nituzke Baserri Antzokiari buruz: bertan hainbat kolektibok parte hartzen duten proiektua da, eta elkargune bat sortzen du, txorierritarrok han eskainiko diren ekintzekin harritzeko, gozatzeko eta hunkitzeko.



Garbiñe Etxebarria, larrabetzuar herritarra
Bazkidetza honen beharra ikusten dut, Euskal Herriaren eta euskararen egoera larrian, edozein kultur ekintza bultzatzea beharrezkoa delako, eta herritarrok egiten ez badugu, inork ez duelako egingo.



Toti Martínez de Lezea, idazlea
Euskaldunoi elkarrekin biltzea gustatzen zaigu, hitz egitea, eztabaidan aritzea ere bai, berri-tzea. Beraz, primeran iruditzen zait euskaltzaleen talde batek Txorierrin Baserri Antzokia egitasmoa martxan jarri izana, zeina gure kultura, hizkuntza eta izateko era maitatzen ditugunoi zabalik dagoen topagunea baita. Baserri Antzokiak bailarako auzokideen laguntza soziala eta ekonomikoa du beharrezkotzat, eta zalantzarik ez dut txorierritarrek proiektu aparta honen sustatzailiek egindako deiari erantzun egokia emango diotena.



BAZKIDE EGITEKO:



Tel.: 634 401 580 (Alazne)



69 posta kutxa
48160 Derio



alegarreta@baserriantzokia.com
www.baserriantzokia.com



Txorierriko
Euskara Elkarteak

Aurton Larrabetzun ospatu dogu AIKOR! aldizkariaren urteurrena. Oso hitzordu berezia izan da guretzat: alde batetik, bederatzi urte bete ditu aldizkariak sortu zanetik, eta, bestetik, 100. alea kaleratu genduan urtarilean. Gatxa da kopururik zehaztea, baina berotasuna sentidu genduan alde guztietatik: horra hor esan ahal dogun gauza bakarra. Herriko eskola txiki gelditu zan ordu batzuetan, jaialdira lagunak ehunka etorri zirala-ko Txorierri osotik.

Larrabetzuarrek hartu eben ekitaldia antolatzeke ardurea, eta, zelan ez, euren ikutua emon eutsien ospakizunari. Ekital-




lurrindegia **MAMEN** mertzeria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion 
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

GOXO-GOXO LOHIZUN
Arretzeldetxer zabalk
Ogile egutero
Postalek enkargatu
Geroztza, 77c
48160 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com


eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88


ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbea kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

di dotorea urten zan, gustu handiz egina eta arretaz zaindua. Malen Amenabar eta Etxahun Lekue bertsolariek zuzendu eben ekitaldia, eta azkar eta zorrotz emon eutseen berbea hizlariei: Tomás Ordeñana Larrabetzuko alkatea, Joan Mari Torrealdai kazetaria eta Xabier Goienetxe aldizkariaren zuzendaria, besteak beste. Era berean, saio zoragarria eskini euskuen Kherau musika taldeak eta Abarka antzerki taldeak.

AIKOR! saria Sabin Aranek eta Lorra nekazari kooperatibak jaso eben. Gotzon Barandiaran idazleak berba hunkigarriak esan zituan, herriko historia berreskuratzen Sabin egiten dabilen ahalegina eskertzeko. Ekitaldia amaitu eta guztiak batu ginan kopaua egiteko. Hotz zan kanpoan, bero-bero egon ginan barruan.




SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

URAS

Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salo - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



GDITDILTZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES AZURMENDI

epetargi@excazuarmendi.com



MOBILA: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158





aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitateak:
umeak

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko
sabaia eta
apalategiak
Sabai
erregistragarriak
Isolamendu
termiko eta
akustikoa

Aiartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TELFOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unibex ileapaindegia
Estetika
Ondulagailu jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Gehi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



ANKAPALU
LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorrak
Hortzoien tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa C/da. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

“Emakumezkoentzako zentroa beharrezkoa da berton”

SUSANA RODRIGUEZ | abokatua

Susana Rodriguez larrabetzuarra abokatua da eta 13 urte daramatza Argitan emakumezkoentzako zentroan lan egiten, Barakaldon. Martxoak 8 aitzakiatzat hartu eta emakumezkoaren gaur egungo egoera izan dugu hizpide.

t/a: Itxaso Marina

Zeintzuk dira emakumeok aurre egin behar diegun arazo nagusiak?

Errespetu-falta oso gaitz larria da. Eta badaude beste batzuk eurekin batera beste arazo batzuk ekartzen dituztenak. Sexu bien arteko ezberdintasuna, adibidez, besteak beste, ondorio txarrak dakartzana: soldata baxuagoak, zailtasunak lan merkatuan sartzeko, eta familia eta lana uztartu ezin izatea.

Emakumezkoek urteak daramatzate gizartearen sentikorrak bihurtzen...

Zaila da. Baina urrats txikiak ere lorpenak dira, eta eraginkorrena norberaren e-

“Ez du ezertarako balio lege bat egoteak, salaketa jarri ostean emakumezko batek nora joan ez badu”

txetik hastea da: seme-alabak berdintasunean hezi eta ikastetxeetan ere horretarako hezkuntza eman, etxeko lana banandu, estereotipoak baztertu, lagunekin gaia landu... Geure balioak ditugula aldarrikatu behar dugu, eta horiek gizonezkoi jakinarazi. Eta esan: nik ez dut zure lekuan eseri nahi, maila guztietan zure ondoan egon baizik.

Zeintzuk zerbitzu eskaintzen dituzte zentroan?

Batez ere laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa. Gehienak lan eskubideen eta banaketen edo dibortzioen haritik datozkigu. Emakumezko nagusiak ere badatoz, urteetan tratatu txarrak jasan dituztela esanez, eta orain, seme-alabak helduak direlako, euren bizitza egitea erabaki dutela. Ikaragarria da!

Bakarrik dago emakumezkoa?

Bai. Ez du ezertarako balio lege bat egoteak, salaketa jarri ostean emakumezko batek nora joan ez badu, epaitegiak zabalik 24 ordutan ez badaude, premiazko neurriak hartzen ez bada, polizia gehiagorik ez badago, aholkularitza-zentro-



rik ez badago... Ez du ezertarako balio Berdintasun Ministerioa izateak hezkuntzan inbertitzen ez bada, amatasun eta aitatasun-bajak eskasak badira, haurtzaindegia nahikorik ez badago, familia eta lanaren artean aukeratzen jarraitu behar badugu, gizartearen balioak lantzen ez badira...

Legeak ez du emakumezkoa babes-ten?

Aurrerapausoak eman badira ere, ezetz erantzungo nuke. Guk hutsuneak zeintzuk diren detektatu eta premiazko irtenbideak martxan jartzeko eska deza-kegu, baina giltza Gobernuak du. Zein egoeratan dauden eta zelango aukerak dituzten jakinarazten dizkiegu emaku-

Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Goiibidea 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA
Garaietza auzoa, 102 • LEZAMA • Tl: 94 455 65 48

LOTERIA LEZAMA
BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROBILLOAK
GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBA
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB
ARRETVALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87



“Premiazko irtenbideak martxan jartzeko eska dezakegu, baina giltza Gobernuak du”

mezkoiei zentroan. Erabakia euren da, eta hori bata edo bestea izanda, ahal dugun guztian laguntzen diegu, eta euren egoera apurka-apurka hobetzen saiatzen gara.

Pobretasunaren feminizaioa ez da fenomeno berria; krisiak areagotu egin du?

Noski. Gizonezko batentzat lana topatzea zaila bada, askoz zailagoa da emakumezko batentzat. Gainera, familia batzuetan, gizona zein emakumea langabezian badaude, gizona izango da lan bila ibiliko dena, eta emazteak seme-alabez, senarrez eta etxeko gauzez bera bakarrik arduratzen jarraituko du. Biribil batean sartuko da eta gero eta zailago izango du

kalera atera eta lana topatzea. Gobernuak neurri gutxi hartzen du, emakumezkoa lan mundura sar dadin. Beste lehentasun batzuk ditu momentu honetan eta, beti bezala, gaia gerorako utzi du. Pentsa eza-zue zer gertatuko zen umeak, senarra eta senideak etxean zaintzen dauden emakumezko horiek guztiak etxetik kanpo lan egingo balute!

Emakumezkoentzako zentroa Txorierrin egotea ezinbestekotzat jotzen duzu.

Dakidanaren arabera, aholku juridiko bila Mankomunitatera jotzen duten emakumezkoak Bilboko zentro batera agintzen dituzte. Antza denez, ez dago dirurik zerbitzua bertan kokatzeko. Eta sei herriek osatzen duten eskualdeaz ari gara... Martxoaren 8an eta azaroaren 25ean egitarau potoloak antolatuko dira, baina zer gertatuko da gainontzeko egunetan? Ba, bertoko emakumezkoek ez dutela nora jo izango, eta ez dela benetako aurrerapausorik emango emakumezkoaren garapenerako. Ospatzea ondo dago, baina neurri zuzenak hartzea ezinbestekoa da.

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

On egin kafetegia

Hanburgesak - otxartekoak - sartekoak
plater konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz
etxera eramateko zerbitzua

Aretxalde azoka, 48-bidea
48194 Lizaso **94 455 63 94**

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sulalde eta bainugeletako harriak
Patxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. • 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbea kalea, 7
ZAMUDIO
94 055 90 06

Patxi S.KOOP. BIKATZALE ORIGINALA

Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Fax: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop
www.patxi.coop

Marques
hiti
carrefour



t: Gaizka Eguskiza / a: Pozgarri

Berdea itxaropenaren kolorea da. Baita pozgarritasunarena ere, edo behintzat Pozgarri taldekoa. Lagun derioztar batzuk bildu eta kluba sortzea erabaki zuten duela 14 urte. "Guztiei gustatzen zitzairen futboleko aritzea eta izena eman zuten Bizkaiko Federazioan. Pozgarrik herriko talde batean jokatzeko aukera eman zion herriko jendeari. Kanpoko lagunak hartuko bagenitu, askoz hobeak izango ginatke, baina hori ez da gure asmoa. Bai, Athletic bezalakoak gara, baina derioztarrak", azaldu digu Arkaitz Elorrieta taldeki-deak.

Gaur egun talde bik eta 30 lagun inguruk osatzen dute kluba. Gainera, 200 bazkide dituzte. A taldeak Lurraldeko Lehenengo Mailan jokatzen du, eta B taldeak, Lurraldeko Bigarren Mailan. 1999an Lurraldeko Lehenengo Mailara igo zen A taldea, eta handik urte gutxira, Lehenetsun Mailara. Geroago, Lehenengo Mailara jaitsi zen berriro. "Bigarren taldea sortu genuen, gurekin jolastera gero eta jende gehiago etortzen zelako. Bertan batez ere jokalariek gazteek jokatzen dute".

Nesken taldea ere egon zen Pozgarri, baina horrek ez zuen luze iraun. "17 urte nituela, neskak entrenatzen hasi nin-

Derioztar alaiak

POZGARRI DERIOKO ARETO-FUTBOL TALDEA

Pozgarri taldea Deriokoa da, eta bertan herriko lagunek baino ez dute jokatzen. Athleticcek euskal jokalariekin egiten duen bezala, filosofia berari eusten dio Pozgarrik 1997an taldea sortu zenetik. Eta pozik gainera.

*Klubak areto-futbola
ez ezik herriko giroa
ere bultzatzen du*

tzen institutuan. Gero neskek utzi zioten jokatzeari, baina taldea berreskuratu nahi izan zutenean, berriro deitu zidaten. Orduan, Zamudion hasi ginen jokatzen. Bi urte eman genituen bertan, eta arazoak sortu zirenean, Deriara joateko aukera izan genuen. Pozgarri taldean aritu ginen urte bitan, baina gero Zamudiora itzuli

eta Iraultza taldearekin jardun zuten. Oraindik ere jarraitzen dute jokatzen", adierazi du Arkaitzek.

Adinari dagokionez, oso anitza da taldea: gazteenak 18 urte ditu, eta nagusiak, 38. "Jokalariek taldeko kontu guztietan hartzen dute parte, eta askotan boluntario ere egiten dute lan, esate baterako jaietan antolatzen dugun txosnan". Txosna da diru-iturrietako bat, baita Gabonetako loteria ere, baina laguntza nagusia herriko merkatari txikiengandik jasotzen dute. "Kartelak plazaratzen ditugu eta han merkatarien iragarkitxoak jartzen ditugu. Horiei esker, jokatzeko aukera dugu, eta benetan eskerrak eman nahi diz-



kiegu. Beste alde batetik, guk Derion ematen dugu denborarik gehiena eta herriko denda zein tabernetan ibiltzen gara. Gurpil zoroa osatzen dugu guztion artean”.

Inplikazioa

Derioko Udalak ere laguntza ematen dio klubari, baina Pozgarrikoei apur bat gehiago gustatuko litzaieke. “Udalak ez digu kobratzen kiroldegia erabiltzeagatik, baina jokalarien erdia bazkidea izan behar da. Gainera, ekitaldi batzuk antolatu behar ditugu urtean zehar: txapelketa bat abenduan eta beste bat San Isidro jaietan, eta horien truke diru-laguntza txiki bat ematen digu. Alde horretatik, ez dago kexarik; hala ere, beste taldeei diru-laguntza handiagoak ematen dizkiete, eta gurean baino derioztar gutxiago jokatzen dute, eta guk baino inplikazio txikiagoa dute herrian”.

Pozgarri taldeak kirola eta herriko giroa bultzatzen ditu, baina batzuetan elkartasun-proiektuetan ere murgiltzen da. “Iaz Gure señeak elkartearen berri izan genuen, gure presidentea hango kidea baita. Euren arazoa ezagutu eta gero, laguntzeko prest agertu ginen. Horretarako, kirol asteburuan hartu genuen parte irailean, eta guk areto-futbol maratonia antolatu genuen gauez. Zortzi talde bildu genituen, eta babesleei esker dirua lortu genuen. Gainera, txosnan ateratako dirua elkarteari eman genion. Gogor egin genuen lan, oso gogor, baina merezi izan zuen, eta elkartea poz-poz ibili zen”.

Derion jaio, lan egin edo bizi direnei ere taldean sartzeko gonbidapena luzatu die Arkaitzek. “Areto-futbola kirol polita eta erosoa da. Etxetik gertu dugu, jokalaria guztiek hartzen dute parte partidetan, neguan ez dugu hotzik pasatzen estalian jokatzen dugu-eta, giro polita dago.... Taldeko ateak irekita daude”. Hala ere, bere ustez, txarto tratatzen da areto-futbola. “Espainiako areto-futbol selekzioa behin baino gehiagotan izan da munduko txapelduna, baina kirol honek ez du oihartzunik. Espainiako futbol selekzioa, aldiz, munduko txapelduna izan da udan, eta horren ondorioz badirudi krisia bertan behera gelditu dela”. Krisia egon badago, baina hori pasatzen den bitartean, areto-futbolearen pozaren pozez jokatzeak aukera dago Derion, Pozgarri taldean.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



BFA
DFB



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA



VAYA SEMANITA
Martxoaren 19an:
1. saioa: 20:00etan
2. saioa: 22:30ean
Sarrera: 10 €
-12 urte: 5 €

EL VIAJE DE MARTIN

Compañía Titirigüiri
(gaztelaraz)
Martxoaren 27an, 17:00etan
-12 urte: 3 €
+12 urte: 5 €



ZINEA



GRU, MI VILLANO FAVORITO
(AG) 95'
Martxoaren 5ean, 18:00etan
Martxoaren 6an, 17:00etan



EL SANTUARIO
(+7) 106'
Martxoaren 5ean, 20:30ean
Martxoaren 6an, 19:30ean



ZIGORTZAILEAK
(AG) 87'
Martxoaren 13an, 17:00etan



VALOR DE LEY
(+7) 110'
Martxoaren 13an, 19:30ean



EL OSO YOGUI
(AG) 80'
Martxoaren 18an, 18:15ean
Martxoaren 20an, 17:00etan



SÍGUEME EL ROLLO
(AG) 116'
Martxoaren 20an, 19:30ean



RANGO
(AG) 91'
Martxoaren 26an, 18:00etan



MECHANIC
(+12) 92'
Martxoaren 26an, 20:30ean
Martxoaren 27an, 19:30ean



GRU, MI VILLANO FAVORITO
(AG) 95'
Martxoaren 5ean, 18:00etan
Martxoaren 6an, 17:00etan



EL SANTUARIO
(+7) 106'
Martxoaren 5ean, 20:30ean
Martxoaren 6an, 19:30ean



ZIGORTZAILEAK
(AG) 87'
Martxoaren 13an, 17:00etan



VALOR DE LEY
(+7) 110'
Martxoaren 13an, 19:30ean



EL OSO YOGUI
(AG) 80'
Martxoaren 18an, 18:15ean
Martxoaren 20an, 17:00etan

SÍGUEME EL ROLLO
(AG) 116'
Martxoaren 20an, 19:30ean

RANGO
(AG) 91'
Martxoaren 26an, 18:00etan

MECHANIC
(+12) 92'
Martxoaren 26an, 20:30ean
Martxoaren 27an, 19:30ean

+12 urte: 2,5 €

+12 urte: 4 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke



t: Gaizka Eguskiza

2010eko abenduan, Gaztela eta Leongo Gobernuak "chacoli" izenpean aurkeztu eban Burgosen ekoizten dan ardaoa. Aurton 4.000 botila merkaturatuko dira. Horrek harridurea eta haserrea sortu ditu euskal jatorri-deituretan. "2002an Europako Batzordeak arautu eban legea, "txakolin" edo "chacoli" izenak Bizkain, Gipuzkoan eta Araban dagozan jatorri-deituraren kontseilu arautzaileek baino ezin dabe erabili. Gaztelako Gobernuak iruzur egin dau eta Europa mailako arauaren kontra agertu da. Ganera, nahastea sortu dau kontsumitzaileengan", esan deusku Antón Txapartegi Bizkaiko Kontseilu Arautzaileko presidenteak.

Era berean, Kantabrian be hasi dira "chacoli" aldarrikatzen, baina hor oso gitxi dira eta ez dabe gobernuaren babesik. "Kantabriako Kostaldea jatorri-deitura badaukie eta hango ekoizleek bat egiten dabe horregaz. Beste batzuek –uste dot bakarra dala– eta alkarte erreionalista batek, oster, "txakolin" deitura defendiduten dabe, baina gobernuak ez deutse babesik emon, Gaztela eta Leonen gertatu dan legea".

Gaztelatik arazo politikoa dala esan dabe, baina Txapartegik ez dauka hori argi. "Euskadiko eta Gaztela eta Leongo

Txakolinaren gerra

Geure ardaoa da txakolina. Euskadin badira hiru jatorri-deitura produktu hau babesten eta ekoizten dutenak: Bizkain, Gipuzkoan eta Araban. Historikoki, Kantabrian eta Burgosen be ekoiztu da txakolina, eta orain txakolin deituraren pean merkaturatu gura dabe euren ardaoa. Euskal erakundeak, barriz, ez dagoz ados. Txakolinaren gerra hasita dago.

gobernuen arteko gatazka argi dago. Danok bete behar dogu legea, eta, lege hori 2002an ezarri zanean, Alderdi Popularrak bultzatu eban. 2009an, barriz, egokitu egin zan legea, eta Alderdi Sozialista egoan gobernuan orduan. Gatazkak ez dauka zerikusirik abertzaletasunagaz; legeak "txakolin" izena babesten dau, eta horretan Estaduko alderdi guztiak etorri dira bat".

Aprobetxategiak

Errazoi historikoak be adierazo ditue Gaztelakoek, han beti egin dabelako txakolina. "Hori egia izan arren, orain 30 urte inork ez eban ezer jakin gura txakolinaz,

eta orduan geu hasi ginan, hiru euskal jatorri-deiturok, txakolina bultzatzeko beharrean. Azken hiru hamarkada honeetan berreskuratu egin dogu produktua, eta hara non agertu dira orain Gaztelatik txakolina aldarrikatzen. Ez dot uste zilegi danik, eta aprobetxategi hutsak iruditzen jakuz".

Pedro Mari Olabarrieta Txorierriko Upeltegien Alkarteko presidentea da eta ados dago Txapartegigaz. "Izugarrizko kaltea egin deuskue Burgosko ekoizleek. Guk geurea defendidu behar dogu: gogor egin dogu behar, eta goi mailako ardaoa egiten dogu gaur egun. Eurek esku-bidea daukie ardaoa, euren ardaoa, e-

*“Legearen arabera,
“txakolin” izenak
euskal kontseilu
arautzaileek baino
ezin dabe erabili”*

*“Izugarrizko kaltea
egin deuskue
Burgosko ekoizleek.
Guk geurea defendidu
behar dogu”*

koizteko, baina beste izen bat jarri behar-
ko deusie, txakolina geurea dalako. Eta
jatorri-deitura sortu gura badabe, gure
aldetik, arazorik ez”.

Beste konponbide bat Burgosko
ekoizleek euskal jatorri-deituraren baten
sartzea izan leiteke, baina Txapartegik ez
dau hori logikotzat hartzen. “Alde batetik,
eguraldi desbardinak doguzalako, eta,
ondorioz, sortzen doguzan ardaoak be
desbardinak diralako. Euskal Herrian egu-
raldi atlantikoa dogu, hezea; Burgosen
eguraldia kontinental da eta neguak oso
hotzak dira, eta udak, oso beroak. Beste
alde batetik, kudeaketa gatzagoa izango
zan: Burgoskoak sartzen badira, Eusko
Jaurlaritzaren eskuetan baino, Espainiako
Nekazaritza Ministerioarenetan gelditu-
ko zan kudeatzeko ardura”.

Euskal Kontseilu Arautzaileek ez dabe
Gaztelako Gobernuaren jarrera epaite-
gietan salatu, “ardura hori erakunde pu-
blikoena dalako”. “Eusko Jaurlaritzak Gaz-
tela eta Leongo Gobernuari ohartarazo
deutso, euren ardao ekoizten jarraitzen
badabe, epaitegietara joko dauela. Orain,
Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gober-
nuak egin behar ditue urratsak, eurek di-
ralako horretarako eskumena daben
agintaritzak. Europak be zeresana eukiko
dau, berak emoten ditualako jatorri-dei-
turak. Eusko Jaurlaritza geure alde dago,
eta heldu behar dan tokiraino helduko
dirala esan deuskue”.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laritate Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Urtzagaz Itzala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

GURE TALER ETAK LABORATEGIAK EZAGUTZERA ETORRI
ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOKA
• Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
• Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
• Produktzioaren programazioa (2.000 ordu)

KIMIKA
• Ingurumen-kimika (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
• Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak (2.000 ordu)
• Telekomunikazio eta informetika sistemak (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA
• Merkataritza eta marketin gestioa (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!

–Egun on Luki! Beste ezer baino lehen, gauzatxu bat argitu behar deustazu: neska gazteak ditzolaria zer dan itaundu deust goizeon.

–Ba, bat-bateko erantzuna emoten dauena. Hurreratu eidak iPad hori. Lehen telefono listina eukiten zan tabernan kontsultarako; orain iPada. Hi bai moderno Zipiri! Hara zer dakarren *Adorez* hiztegia Luis Baraiazarrak: *Errimadun hitz joko politak egiteko nahiz erantzun zorrotz, azkar eta umorezkoak emateko etorria duen hiztuna.*

–Ipini **eistak** adibide bat Luki!

–Esate baterako:

–Erosi joat iPhona.

–Ez gastau barik txanpona.

Gainera, Zipiri, laster etorriko dok Patxuel. Ha dok testularia.

–**Hamen** jatork!–**Botaik** Patxuel bostekoa!

–Ez dok horrenbestekoa!

–Osasunez ondo habil?

–Bihotza, Luki, pil-pil.

–Urteak arin eta ondo joan arren, hobeto gura.


–60 urtegaz 60ko abiadura.

–Orduan Patxuel, 20koari bizitzea zelan joako?

–20 kilometro orduko.

–Arinago ibiliko dok **erbie**?–Baneuko, jango neuke **erdie**.

–Urteak Patxuel zahartzaroan erbia dira.



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

Ditzolariak kafetegian

–Ez jarri nire belarriei begira.

–Gauza batzuk, ostera, hobeto astiro.

–Ez erbiari tiro.

–Ez dok asko hik esateko.

–Hainbeste kopla, Luki, kafea

pagetako?

–Hartuko neuke beste bat, neuk be.

–**Ondiño** ez dok ordaindu bat be!

–Llorentek penaltiz be ez gol.

–Urkiolatik gora iturria Pol-Pol.

–Behin, Patxuel, han ibili nintzan zingili-zangulu.

–Edango zenduan ur gardena glu-glu.

–Bihar Patxuel jaia, etzi domingo.

–Arrautza gorringo!

–Hik daukak mutil berba-etorria!

–Etxeko txorroa ez dok iturria!

–Non egoten haiz hona ez

hatorrenian?–Isil-isilik kaia **barrenian!**

T. 94 447 8330
www.aisiahoteles.com

Paquete especial GOLF GASTRONÓMICO
Incluye: 1 circuito relax, comida con menú especial y un green fee para campo de 9 hoyos.



T. 94 454 0574
www.pandpderio.com

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi laguntzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

Nork antolatu du nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
Sondikan
Irabazlea:
Idoia Aurrekoetxea

8

MARTXOAK
EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO
EGUNA

EMAKUMEA,
BAZARA,
AHAL DUZU!



Etxeko sukaldaritza

Flana, madariakaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak:

- Madari bi
- 400 cl. esne
- 200 cl. esnegain
- 5 arrautza
- 150 g azukera
- 50 g azukera (moldean karamelatzeko)
- Mugurdi eta txokolatezko ziropeak



Prestateko area:

Madariak garbitu eta zurituko doguz, eta haziak eta alde gogorra kenduko deutseguz. Madari baktotxa lau zatitan ebagiko dogu. Zatiak su bizian 10-15 minututan eukiko doguz egosten, ur apur batez. Zatiak sikatu eta molde karamelatuan jarriko doguz ordenan. Ziropeak izan ezik, beste osagai guztiak irabiatu eta gainetik botako dogu dana. Laban 180 gradutan sartuko dogu Maria bainuan. Laban 40 minutu inguruan eukiko dogu. Eginda dagoanean, handik atera eta hotzitzen itxiko dogu. Flana moldetik atera, eta 12 zatitan ebagiko dogu. Plater baktotxean zati bi ipiniko doguz. Zation azpian magur-dizko ziropea ipiniko dogu, eta gainetik txokolatezkoa botako dogu.

Inauterietako
tostadak

iturria: www.compan.es

Osagaiak (4-6 lagunentzat):

- Tostadatarako ogia
- 3/4 litro esne
- 4 koilarakada azukera
- Kanela adar bat
- Arrautza bat
- Birrintutako azukera eta kanela

Prestateko area:

Hasi esnea berotzen esne-ontzi baten kanela adarreko lau zatigaz. Bero dagoanean, gehitu azukera gitxika-gitxika, tenperatura handirik hartzen itxi barik. Astiro-astiro irakin beharko dau. Irakiten dagoanean, baztertu surtatik eta itxi epeltzen ordu erdian. Erretilu baten, ebagi ogia 6 zatitan bies eran. Gehitu esnea. Noizean behin emon bueltak ogiari. Blai eginda dagoanean, itxi ordu batzuetan atsedean hartzen. Sardexka batez zulo-txuak egin ahal jakoz, arinago bustitzeko.

Tostadak egiten hasi baino ordu erdi lehenago, baztertu esnea eta geratzen diran kanela zatiak, baina likido guztia atera barik. Irabiau arrautza eta gehitu erretilu berean. Emon pare bat buelta danari, ogiak ondo xurgatu daiten dana. Behin arrautzarekin ondo nahastuta dagoanean, ondo berotu olio betetako zartagin bat, eta frigidu opiltxoak: holan arin horituko dira, sikatu barik.

Azkenik, ipini tostadak azukeraz hautseztaturiko erretilu baten eta gehitu azukerea (baita kanela be, nahi dauenarentzat). Epel daudenean jatea da gomendagarria. Aurreko egunekoak izatekotan, jan baino lehen zertxobait berotzea da egokiena.

ERREKA
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Tallera kafea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa

Lehendakari Leizaola enparantza, 2 behe
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Mobiila: 615 742 788

 **Ercoreca**
supermerkatuak

Elikaduran adituak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Sakoneta / Xabier Mendiguren
- Kriseiluaren argipean / Anxel Fole Sánchez
- 2009 Bertsolari txapelketa nagusia / Batzuk
- Ez dago etxean / Jokin Urain
- Tartariarren basamortua / Dino Buzzati

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Neska haur jalearen bazkaria / A-nais Vaugelade
- Dinosauroen garaian / Mathilde Elie
- Irudien eta hitzen liburu potoloa / Ole Konnecke

MUSIKA

- Omerta / Mafia
- Aiton-amonekin kantari / Batzuk
- Don't give up / Ainhua Arteta
- Gau hotzenean ere / Olatz Zugasti

Sudokua

1			4			8	6	
7		2	9					5
		9	1	6		5		
			5				4	
	7				2			
								8
		5	8	4		9		2
			2				5	

4	5	6	1	3	2	7	9	8
2	7	9	6	8	4	5	3	1
8	1	3	5	9	7	6	4	2
6	9	2	1	8	3	4	7	5
3	4	2	9	7	5	1	8	6
7	8	5	4	9	1	6	3	2
5	3	4	8	1	9	2	7	6
9	6	8	7	4	2	3	5	1
1	2	7	3	5	6	8	4	9

BAR BIDE-BI

Zamudio
Aukeratu zurea

Goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

CAFE-BAR BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 25

CARROCERIAS TXORIERRI

José Antonio Sainz

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Tornieragotri Pol. Vial aur C-15, Nave 60-1 48160 Zamudio BIZKAIA

T/Fax: 94 452 29 03

Antzerkia eta filmak

Derio

- > *A pesar de ellos*, Aztiak taldearen eskutik. Martxoaren 4an, 20:30etan, Gurea Aretoa.
- > Txotxongiloak. Martxoaren 20an, 17:00etan, Gurea Aretoa.
- > Zine foruma. Martxoaren 30ean, 18:00etan, Gurea Aretoa.

Larrabetzu

- > *El problema*, Saharari buruzko dokumentala eta zine foruma. Martxoaren 3an, Anguleri kultur etxean.

Erakusketak

Derio

- > "Comprometidos con Anantapur" Vicente Ferrer fundazioaren eskutik. Martxoaren 14ra arte, kiroldegian.
- > Koldo Etxebarriaren "Metafísica en la modernidad" eta Alberto Rementeríaren "Laboratorio de papeles. Martxoaren 18tik aurrera, Birika kultur etxean.

Hitzaldiak

Derio

- > "La mujer en Anantapur", Vicente Ferrer fundazioaren eskutik. Martxoaren 7an, 19:00etan, kiroldegiko kultur aretoa.
- > "Bizkaiko Donejakue bidea". Martxoaren 10ean, 19:00etan, CAN kutxan.
- > "Nola lagundu umeei galerei aurre egiten", gurasoen elkarteak antolatua. Martxoaren 18an, 17:00etan, Gurea Aretoa.

Ikastaroak eta tailerrak

Larrabetzu

- > Autoestimua, Begoña Gomezen eskutik. Martxoaren 17tik aurrera, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Izena ematea: martxoaren 11ra arte.

Irteerak

Derio

- > Ziortza kolegiata-Gernika, Untza mendi taldeak antolatua. Martxoaren 13an, 08:00etan, Nagusien Etxean.

Zamudio

- > Benidorm. Informazioa emateko bileta: martxoaren 9an, 12:00etan, Zamu-diotarren.
- > Urdaburu eta Aldura, Arroeta mendi taldeak antolatua. Martxoaren 13an, 08:00etan.
- > Izaba, Arroetak antolatua. Martxoaren 25etik 27ra.
- > Guggenheim museoa. Martxoaren 26an, 10:00etan.



Lezama

- > Maeztu, Gailur mendi taldeak antolatua. Martxoaren 12an.
- > Jata, Zorribike taldeak antolatua. Martxoaren 20an.

Jaiak

Derio

- > Sasimartxo, Tximintx euskara elkarteak antolatua. Martxoaren 6an, 17:00etan, Santi Mami basilizan.

Bestelakoak

Derio

- > Birika kultur etxearen inaugurazioa. Martxoaren 18an, 19:30etan, Anboto plazan.
- > Ate irekiko jardunaldiak, Birika kultur etxean. Martxoaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

Zamudio

- > Udal ikastaroetan izena emateko epea: martxoaren 25era arte.
- > Bazkaria, Adintsuen elkarteak antolatua. Martxoaren 26an eta 27an, 14:30etan.
- > Plater-tiroko saioa, Txorierrri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua. Martxoaren 19an, 10:00etan, Teknologia Parkean.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 13an, 11:00etan, plazan.

Larrabetzu

- > Prestakuntza, zaintzaile ez profesionalentzat. Izena ematea, martxoaren 14tik 18ra, liburutegian.
- > Aste Santuko programan izena ematea: martxoaren 22tik 25era, liburutegian.

ESTILISTA
NENKA-MUTILEN
ELEAPAINDEGIA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Laruntza: 9etatik-14etara
Uribe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19 (Aurreko txanda)

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ASADOR
ARAMENDI
EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK
Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

amaz
taberna
leizola (ehendakari 7 (Zamudio))

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrakoak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es



GRUPO
Industria de Turbo Propulsores, S.A.

AURTENETXE, S.A.

Kontzezionarioa - Banatzailea - Zerbitzu Teknikoa



**ESKAINTZAK
UDABERRIAN**

**%15etik %30era
bitarteko
beherapenak**



Eskatu
informazioa
gure aukerako
makinei buruz



Sogean Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18